

Bilbo, 2010-01-03

ASEL LUZARRAGA idazle eta penkidea, Txilen atxilotu dute



2009eko azken egunean, abenduaren 31ean, Asel Luzarraga atxilotu zuten Txilen, Padre las Casas-eko bere etxean.

Ordu batzuk lehenago lehergailu bat aurkitu zuten Txileko “La Araucanía” eskualdeko Justizia idazkaritzan. Lehergailua bolbora beltzez betetako su-itxalgailu batez egin zen eta txaleko batez estalia zegoen idazkaritzak atarian duen lorategian. Atentatuak huts egin zuen, gailuak ez zuen leher egin, detonazio mekanismoak huts egin zuelako.

Cristian Dulansky Araya-k, Txileko La Araucanía eskualdeko Cautín probintziako gobernadoreak, kereila jarri zuen Asel Luzarragaren aurka Txileko Berme Epaitegian, eta epaileak onartu egin zuen. Atxilotutakoan, bere etxea miatu zuten eta iturri ofizialek diotenez, su-itxalgailu huts bat, bolbora eta metxak aurkitu zituzten.

Euskal PENeko zuzendaritzakoak telefonoz mintzatu dira Luzarragarekin eta berak konfirmatu du ez zuela jakin zergatik ari ziren atxilotzen eta, gainera, ez duela zerikusirik leporatutako karguekin. Guk ikusten dugun moduan, Aselen aurka jarritako kereilaren helburua da hark maputxeen alde egiten duen lana etetea, deserosoa baita.

Asel Luzarraga idazlea da, itzultzailea eta musikaria. Lau nobela argitaratu ditu *Hamaika ispilu ganbil* (2003), *Karonte* (2005), *Mozorroaren xarma* (2007) eta *Abaraska* (2008), eta *Punkamine* musika taldeko abeslari ohia da. Honetaz gain bi blog pertsonal mantentzen ditu: Bata goiena.net-en duena eta bestea Gorribeltzean izenekoak.

Egun, Euskal PENeko Zuzendaritza Batzordekidea da.

Urtarrilaren 4an, astelehenean, eguerdiko 12,00etan, euskal idazle talde batek eskuan emango dio gutuna Txileko kontsulari, Leioako Sabino Arana kalean, 18. zenbakian.

Eranskina: Txileko eta Espainiako agintariei Euskal PENek idatzi dien gutuna.